

Zarama

Zarama 1977an Santurtzin (Bizkaia) sortu zen eta 1994an desagertu zen.

Hauek izan ziren taldeko partaideak: Roberto Moso (abeslaria), Tontxu Tabares (gitarra-jotzailea), Txus (gitarra-jotzailea), Xabier Alvarez "Javi" (baxu jotzailea), Ernesto Alava (bateria jolea) eta Joseba Lafuente (teklatu jolea).

"Bildur naiz" izan zen taldeak grabatu zuen lehen kanta. Itziarko (Gipuzkoa) Mandiope dantzalekuan Euskal Musika 80 lehiaketan bigarren sailkatzeagatik zegokien saria izan zen . 1983an argitaratu zuen taldeak bigarren singlea, "*Zaramaren erdian*" eta "*Gasteizko gaua*" kantuekin (1976ko martxoaren 3an hil zituzten langileen omenez egindakoa hori). Ordurako, Zarama lehen diskoa argitaratzeko prest zegoen, eta luze gabe atera zuen. 2009ko otsailean Zaramaren itzulera iragarri zuen Roberto Mosok, eta apirilaren 18an kontzertua eman zuen Bermeoko Kafe Antzokian.

Hauek kantu ospetsuenetakoak dira: Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun, Ezkerralde, Gasteizko gaua, Zoaz Euskal Herrira...

Kanta: Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun.

<https://www.youtube.com/watch?v=L3WByEELdNM>

Martzianoak bezala
kalean galdurik ibiltzen.
Hogeitamalau gradu
eta izerditan blai.

Nerbioi ertzetatik
Santurtzitik Bilbora
non iniltzen ziren
lehengo sardinerak,
inork ez dakien nondik
irten den arrantzaz.

Tabernaz taberna:
"vendo barato"
goizean eta gauez:
"mucho barato"
askotan baraurik:
"todo barato"
izenik ez dute soilik Iñaki:
Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun.

Egileak: Olaia Otxandorena eta Eider Zamora.